



HAL
open science

”Euskalkien sailkapen berria”, 2019, Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Gaminde, Jose Luis Ormaetxea Txipi, Xarles Videgain, ed. Bilbao, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 181 or. ISBN: 978-84-1319-096-9

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. ”Euskalkien sailkapen berria”, 2019, Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Gaminde, Jose Luis Ormaetxea Txipi, Xarles Videgain, ed. Bilbao, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 181 or. ISBN: 978-84-1319-096-9. 2020, 10.35462/FLV129.10 . artxibo-02908436

HAL Id: artxibo-02908436

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-02908436>

Submitted on 29 Jul 2020

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Año LII. urtea

129 - 2020

Urtarrila-ekaina

Enero-junio




FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Erreseina.

*Euskalkien sailkapen
berria*

J. B. Coyos



Euskalkien sailkapen berria

Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Gaminde, Jose Luis Ormaetxea Txipi, Xarles Videgain, 2019

Bilbao, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 181 or.

ISBN: 978-84-1319-096-9

Erreseina/Reseña/Review:

Jean-Baptiste Coyos

IKER (UMR 5478)

DOI: <https://doi.org/10.35462/FLV129.10>

Euskararen dialektologiak, erran nahi baita euskalkien ikerketak, historia luzea du. Erran daiteke XIX. mendearen bigarren erdian Louis Lucien Bonaparteren lanekin hasi zela. Lan horiek dialektologiaren sortzailatzat edukia den Georg Wenker alemanaren ikerketen garaikideak ziren. Historia luze horretan aztertuko dudana *Euskalkien sailkapen berria* (ESB) liburua urrats berri bat gehiago dugu.

Eginen dudana irakurketa lineala izanen ez da. Saiatuko naiz ikerketa horren ekarpenak, mugak eta balizko ahulezia teoriko edo metodologikoak agertarazten. ESB liburua «dibulgazio-lana da» (10. or.) eta egia da ongi idatzia dela, irakurtzeko erraza. Aipagaia, teknikoak izanik ere, argiki aurkeztua da, era metodikoan 2. ataletik 8.era: 2. Oinarri teorikoak, 3. Metodologia, 4. Izen-morfologia, 5. Aditz-morfologia, 6. Sintaxia, 7. Fonologia, 8. Lexikoa. 9. Eranskinak atalean (165-176. or.), datu-baseak osatzeko erabili diren datuak emanak dira euskalkien sailkapen berri hau egiteko. Glosario bategiaren izen tekniko batzuen adiera ematen du (179-181. or.). Halere, argudiatzea ulertzeko, emaitzen balioa neurtzeko, hobe da, bistan da, euskararen ezagutzan eta hizkuntzalarietan aditua izatea.

Autoreen arabera, euskalkien sailkapen berri hau berezia da «orain artean egin direnaren asko urruntzen baitira hemen erabili den marko teoriko, metodologia eta sailkapen-prozedurak» (9. or.). Hau da hemen aztertzen saiatuko dudana.

1. METODOLOGIAREN ORIGINALTASUNAZ

Osotasuna: hizkuntza-ezaugarriren aukeratzetik gabe

Ondoko aipamenean lan horren argumentuetarik nagusi bat dugu, euskal dialektologiaren haren modernotasuna, berezitasuna, garrantzia eta zientifikotasuna justifikatzeko (kalifikatzaile baikor horiek eta beste batzuk liburuan zehar erabiliak dira): osotasuna, erran nahi baita sailkapenean hizkuntza-ezaugarriak ez aukeratzea.

[...] erabilitako metodologia ere oso ezberdina da: orain arteko sailkapenak hizkuntza-ezaugarrien aukeraketan oinarritu izan dira; aldiz, honetan ez da irizpiderik

aukeratu, hizkuntza-alor bakoitzean erabilgarri izan diren ezaugarri guztiak erabili dira (9. or.).

Datu kopuru handiak erabiltzeak ezaugarriak aukeratzea baztertzen du (15. or.).

Bi arazo agertzen zaizkit ikertzeko molde honetan. Bata hori da. Horrek erran nahiko luke aztertu diren hizkuntza-ezaugarri denek balio berdina luketela, ber mailakoak liratekeela. Ohar gaitzen hizkuntzalaritzan orokorki, hizkuntzen tipologian hizkuntzak konparatzeko eta sailkatzeko adibidez, aztertu den hizkuntza alor-bakoitzean hizkuntza-ezaugarri batzuk lehenesten direla, beste batzuk baino, beti. Adibidez, tipologian hizkuntzen sailkatzeko, SOV / SVO / VSO... (Subjektu-Objektu-V = aditza) modelo prototipikoak biziki landu eta eztabaidatu izan ziren tipologia sintaktikoan, beste ezaugarri sintaktiko batzuk baino gehiago.

Eta egiteko molde horrek deus ez du ikustekorik diakronia edo hizkuntzaren historiarekin 16. orrialdean erraten den bezala. Ikerketa sinkronikoetan ere, aztertzen duen hizkuntza-gertakari edo egitura multzo osoan, ikertzailea hierarkia eta mailak sortzen saiatzen da. Adibidez, ESBren «Zuberoako azpieuskalkiaren ezaugarriak» saillean, «Sintaxiari dagokionez», «*Nahi* aditza intrantsitiboan jokatzea (*nahi zia egon jarririk?*)» eta «Zehar-galderetan *-netz* atzizkia erabiltzea (*eztakiat jin denetz*)» ezaugarriak aipatzen dira (151. or.). Bi ezaugarri horiek ez dira ber mailakoak eta deskribapen linguistiko batean ber atalean aurkeztu beharko ez lirateke. Lehenean, *nahi* aditz modalarekin, beste euskalkietan erabilera beti transitiboa da; aldiz zubereraren aditz nagusiak aditz-laguntzailea manatzen du (adibidean, *egonekin izan* aditz-laguntzailea erabiliko da). Bigarreanean, mendekotasun-atzizki berdinarenean forma-bariazio bat besterik ez dugu (*-netz*, beste nonbait *-n* edo *-ne(t)z*), egitura sintaktikoa berdina egonez.

Bigarren arazoa hori da. Hizkuntza bat edo euskalki bat aztertzeako, forma eta egitura denen aztertzea ezinezkoa da. Hori hizkuntzan (*lengua, langue*) egonez. Bistan da, hizketan (*habla, parole*), corpora infinitua da. Nahi ala ez, hizkuntzalariak corpus bat sortzen du edo emana den bat hartzen du, hemen bezala, *Euskararen herri hizkeren atlasaren* (EHHA oraindik¹) datuak aztertuz, eta horiek bakarrik (16. or.). ESBren ikertzaileek aztertu duten corpora sortu ez badute, EHHAREN inkestaren galderak hautatu dituztenek sortu dute (ikus segidan) eta mugatua da. Gainera galdera denetan erantzunik ez zen beti izan: «Esan behar da galdera batzuk [aditz-morfologiaz] baztertu egin direla, erantzunetan hutsune asko izan dituztenean» (52. or.). Errezentsio honetan ESN han-hor falta diren forma, klase lexikal, gramatikal edo egitura batzuk aipatuko ditut eta zehazkiago zubereraren kasuan (ikus 4. atala).

1 Lehen aldiko, EHHA aipatua da 16. orrialdean, hau erranez: «Euskaltzaindiaren EHHA egitasmoko datu argitaratuak erabili dira», baina siglaren adiera zein den esplikatu gabe.

Corpus handiaz – ESBk erabili duen corpusaren izaera

Hori da ESBren berezitasun eta justifikazio nagusietarik bat. Corpus handi bat aztertzearen bidez, «subjektibotasuna baztertzea», intuizioa gainditzea:

[...] gaur egun datu kopuru handietan oinarritutako sailkapena egiteko lanabesak eskura izanik, ezaugarriak aukeratu ordez datu kopuru handiak erabiltzen dira, eta subjektibotasuna baztertuz objektibotasuna bilatzen da (14. or.).

Horrek [EHHaren corpus «handiak»] fidagarritasuna ematen die emaitzei (15. or.).

Ikerketa honetan erabili den datu kopurua inoiz euskalkien sailkapenerako izen-morfologian erabili den handiena da. Izaera honek eta sailkapen-teknikak erabiltzeak ematen diote ekarpen honi duen ezohiko garrantzia (33. or.).

Lehen oharra da, era batez, tresna informatikoen aurrerapenarekin corpus handien moda izan dugula hizkuntza-zientzietan. Bistan da, corpus handien tratatzea lagungarria da analisia indartzeko, baina corpus horiek teoria linguistikoa aldatu ez dute. Corpus handiek eta teknika estatistikoek ez dute analisi linguistikoa ordezkatzeko, lagunduko bakarrik. Datuen biltze egokia eta teoria linguistikoa batean oinarritu den analisia saihestu behar ez dituzte.

Ildo honetan, bigarren oharra da EHHaren corpora eraikia dela. Autentikoa ez da, sortua da. Gainera, argia da EHHA egiteko inkestak garai hartako euskalkien forma denak bildu ez dituela, izan dadila fonetika, lexiko, aditz-forma edo sintaxi alorretan, adibidez. *Euskararen herri hizkeren atlasean*, 2857 nozio (lexikalak nagusiki) ezberdin aztertu dira galderen bidez, 319 berriemaileri esker, 145 inkesta-puntutan. Zehazki galdera kopurua alorka hau da: lexikoa 2.163 galdera, «jokatzeko morfologia / izen morfologia» (kasuak, izenordain ezberdinak, konparatzaileak, zenbakiak): 595 galdera, «joskera / aditz morfologia» (adizki ezberdinak, komunztadura, mendeko perpaus batzuk): 62 galdera, «joskera fonetika» (ezaugarri fonetiko batzuk): 37 galdera. Euskalkiak edo azpieuskalkiak aztertzeko, desoreka handia deskribapen linguistikoaren alor ezberdinen artean badago, jakinez, bistan da, hizkuntza edo euskalki batean hitz gehiago badirela fonema edo egitura sintaktiko baino. EHHAN lexikoak baserriari, laborantzari, arrantzari, eskulangintzari... leku handia ematen die.

ESBren ikertzaileek nozio («kontzeptu») horien zati bat bakarrik kontuan hartu dute: 649 ezaugarri (15. or.), erantzunen % 5 baino gehiago hutsik diren galderak baztertuz (20. or.). Anitz da, baina mugatua ere. Helburua datu-kopuru handi bat aztertzea zen. Zergatik ez zen baliatu euskal dialektologiak bildu duen material ikaragarrikoa, azken hamarkadetan bederen, sinkronian egoteko? Azkenean EHHak ematen duen corpora, handia izanik ere, zinez txikia da daukagun material dialektologiko osoari konparatuz. Gainera, aztertu diren hizkuntza-alorretan (izen- eta aditz-morfologia, sintaxia, fonologia eta lexikoa) zati bat bakarrik ikertu dela ohartuko gara. Adibidez, Izen-morfologia atalean (33-49. or.) izen-elkarketa eta eratorpena ez dira batere ikertzen; adjektiboaren klase lexikala aztertua ez da, etab.

Bistan da corpus osoago batek lan eta baliabide gehiago galdetuko lituzke: erabiliak diren datu denen lematizazioa edo etiketatzea, besteak beste.

Euskalkien sailkatzeko prozedura eta teknika – Dialektometria: analisi estatistikoak

Azkenik, sailkatzeko erabili diren prozeduretan ere desberdinak dira: haiek [L. L. Bonapartek eta K. Zuazok] ez dute sailkatze-teknikarik erabili; hemengo honetan, ordea, zientzietan objektuak sailkatzeko erabiltzen diren prozedura eta teknikak erabili dira (9. or.). Dialektologia tradizionalan dialektoen banaketan metodo intuitiboak erabili izan dira [...] Estatistika sailkatzaileak, aldiz, [...] sailkapena egiteko aukera ematen du, multzokatze hierarkiko deitutako analisia erabiliz [...] dialekto kopurua erabakitzeo prozedura zientifikoak erabili beharra dago (17. or.).

Mekanismo horiek hizkuntzara eta euskarara aplikatuz lortuko da sailkapen zientifikoa eta zientifikoki onartua den sailkapena (13. or.).

Errezentsio honen bigarren atalean, teoriari emana denean, ESBren «objektuen» izaera aztertuko dut, unitateena, «hizkuntza-ezaugarriena». Luzatu gabe eta metodo horietan adituena izan gabe, azpimarra dezadan dialektometriaren interesa, oro har, dialektologia kuantitatiboarena. Analisi estatistikoetan oinarritua da, datu-baseak sortuz eta lematizazioa eginez. Horri esker, ESBn hizkuntza-distantzia neurtzen da *Diatech* tresna informatikaren bidez. Ondotik, hizkeren arteko distantzietan esker similaritate-mapak (Getxori eta gero Eskiulari konparatuz), multzokatze-analisiaren dendrogramak eta hizkuntza-alorka (azpi)euskalkien mapak eraikitzen dira emaitzen erakusteko (22-31. or.). Hau da, hizkuntza-alorka, sistematikoki emana dena 34. orrialdetik 117. orrialdera, koloreen bidez era aski erakargarrian. Bukatzeko, beti similaritate-mapak, dendrogramak eta (azpi)euskalkien mapak emanez, «euskalkien sailkapen berri» orokorra emana da 119. orrialdetik 153. orrialdera.

Sailkapena definitzeko inkesta-puntuak: hizkera, herria, lekukoa(k), idiolektoa

Hizkeraren definizio bat emana da glosarioan: «herri bateko hizkuntza-ezaugarriek osatzen duten egitura» (179. or.). Ondorioz ESBn «herri» batek «hizkera» bat ematen du. Beraz 145 hizkera badira, EHHAn 145 inkesta-puntu izan baitziren. Baina «hizkuntza-ezaugarriak» lekukoen bidez biltzen dira eta 47 inkesta-puntu lekuko bat bainik ez zuten izan. Hots 47 idiolekto, lekukoen herena. ESBko joko-araua hori da, onartu behar dena, lekuko laginaren adierazgarritasuna dudan jarri gabe. Similaritate-mapek, multzokatze-analisiaren dendrogramek eta (azpi)euskalkien mapek 145 zati badituzte beti.

Ondorioz, ESBren hizkuntza-formen hierarkia hori dela erran nezake: hizkuntza (euskara) > dialektoa (euskalkia eta azpieuskalkia), hizkera = herri bateko euskara (lekuko batena batzuetan, idiolektoa).

Noizko sinkronia?

ESBk dio: «Orain arteko sailkapenak (L. L. Bonaparte eta K. Zuazorenak, batik bat) ikuspuntu diakronikoan eta gramatika historikoaren irakaskuntzetan oinarritzen diren bitartean, esku artean duzun hau ikuspuntu sinkronikoan oinarritzen da» (9. or.). Ez dut hemen baieztapen hau iruzkintzen ahal. Zinez luzeegi litzateke. Errezentsio honetan, ikergaia beste euskalkien sailkapenen metodologia edo oinarri teorikoa aztertzea ez da. Glosarioan *ikuspuntu sinkronikoa* hola definitua da: «hizkuntza une konkretu batean» (180. or.).

ESBn aipatua den sinkronia noizko da? Grabazioak gutxi gorabehera 1987-1992 bitartean egin ziren. Lekukoak euskaldun zaharrak ziren eta gutxi gorabehera adinekoak (hitz-jokorik gabe). «Hots, gaur egun 100-110 urte inguru izango lituzketen hiztunen datuekin eraiki dela [mapa]» (155. or.). Garai hartan jadanik, Euskal Herri osoan herri-hizkeren bizitasuna ez zen beti hain handia, lekuan lekuko euskararen transmisioa ahula zen. Hori kontuan hartua izan da, erran bezala, hutsunekiko inkesta-puntu batzuk baztertuz bana-banako hizkuntza-alorren ikerketan (20. or.). Lexikoaren alorrean, adibidez, gizarte-tradizionalaren kontzeptuen ezagutza eta euskaraz kontzeptu horien izendatzeko gaitasuna lehenago baino murriztagoak ziren.

2. KOADRO TEORIKOAZ – HIZKUNTZA-ALORRAK, KATEGORIAK, EZAUGARRIAK (UNITATEAK)

Hizkuntzalaritzan, hizkuntza-ekintzak eta gertakariak gutxi gorabehera alor horietan aztertzen dira hizkuntza (edo dialekto, idiolekto) batean: fonetika eta fonologia, morfologia, sintaxia, lexikoa, semantika eta pragmatika. «Hizkuntza-atalak» deituak dira glosarioan (179. or.). Sailkapena egiteko, zein dira ESBn kontuan hartuak diren hizkuntza-alorrak? Nola definituak dira? Kategoria linguistikoak, lexikalak eta gramatikalak? Azkenean, zein da ikerketaren oinarria den teoria linguistikoa? Alorrak bost dira: «[...] izen-morfologia, aditz, sintaxia, fonologia eta lexikoaren datu-base bereziak eraikiz joan gara» (20. or.). Emanak dira, definiziorik gabe. Ikusiko dugu banan-banan alor horietan zer den kontuan hartua eta nola.

Analisi dialektometriko osoa *hizkuntza-ezaugarrietan* oinarritua da. Baina glosarioan hizkuntza-ezaugarri nozio horren definiziorik ez da. Hala ere, ikerketa denetan erabilia da: hizkeren definizioan sartzen da, hizkuntza-distantziarenean edo distantzia-unitateenean... Holaxe distantzia-unitateak «hizkuntza-ezaugarrien desberdintasuna neurtzeko unitateak dira» (179. or.). Beraz, alorrez alor so egin beharko dugu erabiliak diren «hizkuntza-ezaugarriak» zein diren.

Fonologia (83-99. or.)

Zer da fonologia eta nola fonetikatik bereizten den? Laburbilduz (eta sinplifikatuz) erran dezagun fonetikak hizkuntza baten hotsak eta haien gauzatzea dikurtoan aztertzen dituela, prosodia barne (azentua, intonazioa...). Zubereran, testuinguru batzuetan,

azentuaren lekuak balio fonologikoa du: *espártiña* (espartin, mugagabea) / *espartíñá* (espartina, singularra); *emáztez* (emaztez, mugagabea) / *emaztéz* (emazteez, plurala). Aldiz, azentuaren bariazioak ez badu adiera aldatzen, ez da fonologikoa. Fonologiak hotsen tasun bereizgarriak azaltzen ditu, balio bereizgarrien bidez hizkuntza baten sistema fonologikoa ateratzen du. ESBk dio: «Fonologia segmentalean hotsen inbentarioan eta arau fonologiko zenbaitetan oinarritzen da ikerketa» (83. or.).

Fonologia alorrean, sailkapena egiteko erabiliak diren datuak EHHAN galderen bidez zuzenki bilduak izan ez ziren. Ikertzaileek beste hizkuntza-alorretan sortu dituzten datu-baseetarik 97 ezaugarri ateratu dituzte. Zeinak ez dakigu. Azentuari buruzko 17 ezaugarriak beste iturri batean hartuak izan dira (zerrenda 85. or.). Horiek dira ikerketa fonologikoaren unitateak. Usatu bezala, ber leloa errepikatzen da: «Ikerketa honetan erabili den datu kopurua inoiz euskalkien sailkapenerako fonologiari dagokionez erabili den handiena da» (83. or.).

Ene ustez, nahiz «ez dira nahasi behar ezaugarri fonologikoak eta fonetikoak; lehenak sistemikoak dira, bigarrenak, berriz, ez» erraten den (17. or.), ESBn datu fonetikoak eta datu fonologikoak nahasiak dira, fonemak eta fonema ez diren hotsak, arau fonetikoak eta fonologikoak, biak «morfonologian» sartuz. EHHAREN inkesten xedea hizkeren ahoskera biltzea zen eta ez sistema fonologikoa. Bistan da, ESBren ikerketak euskalkien edo azpieuskalkien sistema fonologikoa eraikitzearen helburua ez zuen. Halere eta ondorioz, fonologikoak deituak diren ezaugarri denak fonologikoak ez dira. Eta, ohartu gabe, sistema fonologikoaren alde batzuk ahantziak dira. Zubereraren kasuan, /y/ ü fonema enblematikoa bezala edo fonema frikari ahostun/ahoskabe oposaketa bereizlea adibidez (ikus 4. atala beherago).

Halaber, ene iduriko, sintaxiaren alorrean, emaitzen aurkezpenetan egitura edo arau bat sintaktikoa den ala morfologia-datu bat den ongi bereizten ez da.

Izen-morfologia (33-49. or.)

Hizkuntzalaritzan, morfologiaren definizio bat baino gehiago badira, teoria eta modeloen arabera. ESBn, sintaxia eta fonologia beste eremutan aztertuak baitira, suposa dezakegu morfologia hitzen flexioaren, elkartetaren eta eratorpenaren ikerketa dela. Baina ikerketa honetan izen eta aditz-morfologia aztertuak baizik ez dira.

Erran behar da ESBn euskararen izen-morfologiaren ikertu den zatia mugatua dela: gaztelaniazko edo frantsesezko perpaus itzulpen bidez, deklinabide-kasu eta postposizio gehienekin, bokal edo kontsonantez bukatzen diren izen batzuen forma-bariazioak, mugagabeen, singularrean edo pluralean direnean, aztertu dira. Anitz izanik ere, izen-deklinabideari buruz EHHAREN 256etarik 156 galderaren erantzun guti dira izen-morfologia osoa ordezkatzeko (ikus Eranskina: 165-166. or.). ESBk dio: «[...] ikerketa honetan erabili den datu-basean agertzen diren ezaugarriak direla, eta, ondorioz, ez du esan nahi horiek bakarrik direla» (43. or.). Bistan da. Izen-morfologiaren atal honetan, izenekiko kasuen erabilera bakarrik aztertua da. Izen berezienak biziki guti. Izenordainea ez. Hemen ere, euskalki denetan kasu eta postposizioen sistema berez aztertua ez da.

Aditz-morfologia (51-65. or.)

Atal denetan bezala, adizkiekin ere, ohar berdina errepikatzen da: «Orain arteko euskalkien sailkapenetan aditz-morfologiak garrantzi handia izan duen arren, ikerketa honetan erabili den datu kopurua inoiz erabili den handiena da» (51. or.). Aditz-morfologiaren kasuan, EHHaren 259 erantzunetarik 136 erantzun aztertu dira (ikus eranskina: 167-168. or.). Hemen unitateak adizki ezberdinak dira. Aditz-laguntzaileen eta aditz trinko batzuen formak aztertu dira, baina ez sistematikoki pertsona denekin. Hots, ohar hau jadanik egin dut: *corpusa* handia izanik ere, azkenean aski mugatua da. Ondorioz, ESBk metodoarekin eraikitzen dituen euskalkietan eta azpieuskalkietan, adizkien sistema partzialki bakarrik erakutsia da.

Pedro de Yrizar ikerketa erraldoiaren baliatzea lagungarria izanen zen adibidez, azken hau partziala izanik ere, euskal aditz-morfologia osotasunean hobeki kontuan hartzeko eta ESBren emaitzak testuinguru handiago batean kokatzeko eta ebaluatzeko². Honelako oharra ESBk ikertu dituen hizkuntza-alor denetan egin genezake: beste euskal dialektologia-lanak ez erabiltzea, ikerketa honen emaitzak kontrastatzeko. Eskasia metodologiko hau larria iduritzen zait.

Sintaxia (67-82. or.)

Erran dezagun sinpleki sintaxiak, perpausak sortzeko, gutxieneko esanahizko unitateak (izenak, izenordainak, adjektiboak, aditzak, adberbioak...) lortzen dituzten arauak aztertzen dituela. Unitate horien arteko erlazioetan hierarkia ateratzen du.

Alor horretan, EHHaren 62 erantzunetarik 61 erantzun aztertu dira ESBn (ikus eranskina 169-170. or.). Sarreran, aldarrikatu den ikerketaren berezitasuna azpimarratzeko, baieztapen aski bitxi hau irakur daiteke: «Orain artean euskalkiak sailkatzerakoan ez da sintaxiari dagokion daturik erabili [...]. Orain artean inoiz ez erabilia izateak [sintaxia/datu sintaktikoak] izaera berezia ematen dio lan honi eta ezohiko garrantzia» (67. or.). Baieztapen hori zerk justifikatzen duen ez dakit. Dialektometriaren metodoak eta teknikak erabiltzen ez dituzten euskal dialektologoen ere sintaxiaren alde zenbait aztertu dituzte beren lanetan, batzuetan sintaxiaren alorrean sailkatu gabe, batzuetan bai. Eta atalaren bukaeran berriz hau irakur daiteke: «Hau da [euskalkien sailkapena] datu sintaktiko hutsekin egiten den lehen aldia. Honek berezi egiten du sailkapen hau, zinez» (82. or.).

Holako dibulgazio-liburuetan, hizkuntzalaritzan eta ikerketa berean erabiliak diren kontzeptu denen definizioa ez ematea ulertu behar da. Holaxe ESBn morfologiaren eta sintaxiaren arteko ezberdintasuna azaldua ez da. Sintaxian baliatu den metodologia aurkezteko (68-71. or.), *utzi* aditzarekin erabilia den aditz-izenaren deklinabide-kasua

2 Euskalari horrek euskalki ezberdinetan *izan* eta **edun* aditz-laguntzaileen forma neutro eta alokutiboak indikatiboan molde ezberdin batzuez bildu eta argitaratu ditu, hamalau liburukitan. Lehena, *Morfología del verbo auxiliar vizcaino* 1992an; azkena, *Morfología del verbo auxiliar suletino* 2002an.

zein den aztertzen da: *-t(z)en* edo *-t(z)era(t)* (*utzi dut egiten / egitera*). Haatik, ikusi dugu izenen deklinabide-kasuak Izen-morfologia atalean ikertuak izan zirela. Beste adibide bat: geroaldia markatzeko atzizkia, *-en* edo *-go* aditzen arabera, syntaxian ere kontuan hartua da (79. or.). Zergatik ez aditz-morfologian? Edo errezensio honen lehen atalean ikusi dugun *-netz*, *-nez*, *-n* menderatzailearen bariazioa syntaxia alorrean aztertu da. Ene ustez, aldaera horiek morfologikoak dira.

Lexikoa (101-117. or.)

Hau da ESNn aztertu den azken hizkuntza-alorra. Alor horren definizioa aski argia da, edo argiagoa. Unitateak EHNaren hitz lematizatuak dira. Ohi bezala, hau irakur daiteke: «Hain zuzen ere, horrexek, datu kopuru handiak eta sailkapen-teknikak erabiltzeak, ematen dio lan honi duen garrantzia» (101. or.) eta urrunago «Euskalkiak banatzeko inoiz erabili izan den datu lexikal kopuru handiena erabili da azterketa honetan. Aipatzekoa da izaera honek egonkortasun- eta fidagarritasun-maila altua ematen diela emaitzei» (117. or.). ESNn ikertu den corpusa hau da: EHNaren 509 galdera lexikalarik 183 aukeratu dira, lexiko berezitua baztertuz (intsektuak, arrainak, txoriak...). Hitzun arrunt baten erregistro lexikalari konparatuz, 183 hitzen kopurua hain handia ez da. Hitzun baten hiztegi aktiboa 1500 eta 3000 hitz artean kokatzen dela onartzen baldin bada, gutxi da.

Baina Euskal Herri osoan 145 lekutan 183 kontzeptu berdinen izendapena eta ahoskera biltzea eta konparatzea, hau da interesgarria dena. Eranskinean, irakurleak lexemen zerrenda ordena alfabetikoan aurkituko du erdaraz, gaztelaniaren (171-173. or.) eta fransesaren arabera (174-176. or.).

Azkenean, EHNak zeharka du deliberatu ESNn hizkuntza-alorrek zein ziren eta horietan zer aztertzen zen. Semantika eta Pragmatika hizkuntza-alorrek bat ere landuak ez dira, dialektologia lanetan egiten ohi den bezala. ESNn dialektometriaren metodologia eta teknikak zorrozki aplikatuak dira, baina dudatsuak diren hizkuntza-oinarri teorikoetan, kontzeptu teoriko ez argi-argietan, ene iduriko, eta corpus zehatz baina mugatu bat landuz, euskalkien deskribapen ez osoa emanez³.

3 Daniel Petit frantses linguistaren aipamen hau itzultzen dut, ez ESNri zehazki aplikatzen zaiola errateko, baina, oro har, oraingo hizkuntzalaritzaren egoera irudikatzeke. Aditu baten ikusmolde bat dugu: «Belaunaldi bakoitzak, bere lekua egiten saiatzen baitu, aurrekoek zientzia praktikatu zuten ez bezalako eskubidea aldarrikatzen du eta paradigma berri baten sortzen pentsatzen du. [...] berrikuntza sentimendu hori [...] aldarrikatu dute Ferdinand de Saussurek, Roman Jakobsonek edo Noam Chomskyk. Bizi garen garaian, aldiz, gauzak ezberdinak dira: berriztapena edo haustura ez ditugu ikusten, baina bai jakintza linguistikoaren transmisioaren atzerapen progresiboa. Ez-ezagutzak eta presakan aritzeak bakoitzari etengabe dena berrasmatzeko sentimendua ekartzen diote», *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 2019, CXIV/2, 33. or.

3. EUSKALKIEN DEFINIZIOA ETA SAILKAPEN BERRIA: MENDEBALDEKOA, ERDIALDEKOA, EKIALDEKOA. IRUZKIN BATZUK

Horiek dira, ESBren arabera, euskalkiak eta azpieuskalkiak: «[...] euskarak hiru euskalki ditu: mendebaldekoa, erdialdekoa eta ekialdekoa. Mendebaldeko euskalkiak bi azpieuskalki ditu: mendebaldeko eta ekialdekoa. Erdialdeko euskalkiak [...]: Gipuzkoakoa eta Nafarroakoa. Eta ekialdeko euskalkiak hiru [...]: itsasaldekoa, barnealdekoa eta Zuberoakoa» (153. or.). Azkenean, xehetasunetan sartu gabe, sailkapen hau beste sailkapenetarik hain urrun ez da, adibidez Koldo Zuazoren 2008kotik (*Euskalkiak, euskararen dialektoak*). Batentzat euskalki, besteentzat azpieuskalki... era orokorrean, zonalde handiak berdinak izanez.

Sailkapena esplikatzeko duen hautatze metodologikoa: multzokatze-analisia – Hizkuntza-desberdintasunaren eskala graduatua

Sailkapen dialektala egiteko, multzokatze analisian erabiliz, hizkuntza-antzekotasuna agertarazten da hizkera (inkesta-herri) bakoitzari adar bat emanez dendrogrametan. ESBk aztertu dituen hizkuntza-alor denetan, hautatze metodologikoa bat egiten da. «Hizkuntza-desberdintasuna» zenbakitu ondoren, dendrogrametako eskalako mailen arabera deliberatzen da zein eta zenbat mulzo har eta ondorioz zein diren euskalkiak eta azpieuskalkiak. Dendrogramaren mozketak ezberdina egin da alorren arabera: 145 mailan aditz-morfologian, 170 mailan sintaxian, 110 mailan fonologian, 170 mailan lexikoan.

Adibidez, fonologian hiru hizkera kopuru gordetzen dira (110 maila inguruan mozketak eginez), beraz hiru «multzo dialektal».

Fonologiari dagozkion datuetan onarritutako dendrograma aztertu ondoren, hizkerak sailkatzeko kopuru egokiena hiru multzotan banatzea da, hain zuzen ere hiru direlako adar luzeenak. Hiru adar horietako biren biltze-puntua (berdea eta urdina) ezkerrean agertzen den eskalako 110 maila inguruan ematen da. Horrek esan nahi du hizkuntza-desberdintasunen % 40,59 biltzen dela maila honetan (91. or.).

Bainan eskalako 80 mailan sei multzo agertzen dira, azpieuskalkiak ESBren arabera (96. or.). Ulertzen da mailaren hautatzeak sailkapena baldintzatzen duela eta ondorioz euskalkien eta azpieuskalkien multzoa. Hori subjektibotasuna edo intuizioa ez baldin bada, ikusmolde bat da, ikertzailearena. Zenbakiak berez mintzatzen ez dira, ikertzaileak mintzarazten ditu eta ESBren kasuan non moztu denak deliberatzen du. «Beraz, garrantzi handia du dendrograma non moztu den zehazteak, edo mozteko lekurik egokiena aukeratzeak, banaketa dialektal egokia lortzeko» (109. or.). Sailkapena esplikatzeko duen gakoak kurtsorearen kokapenaren hautaketa da.

Continuum bat ere bai – Ikuspegi kualitatibo eta orokorra

ESBren oinarri teorikoetan oroitarazten da isoglosek «oso kasu bakanetan bat egiten dutela, edo oso gutxitan banatzen dituztela hizkuntza-eremuak garbiki, edota dialektoen arteko *continuum*a ez dutela azaltzen» (14. or.). Dialektologiaren betiko kezka da:

euskalkien edo azpi-euskalkien arteko mugak ez dira sekula osoki argi-argiak. Egonkorak ez dira. Hizkuntza-ezaugarriaren arabera, inkesta-puntuen emaitzak ez dira berdinak. Sailkapenean biltzen dena da gehiengo bat. Euskalkien sailkapen berri horrek ere hori agerian ematen du.

Laburbiltzeko, nahi ala ez, ikuspegi kualitatiboa beharrezkoa da, ezin baztertzea da, zenbakien gaintetik euskalkien izaera edo pisua neurtzeko. Gainera, ikuspegi orokor bat beharrezkoa da eta, «tradizionala» izanik ere, euskal dialektologiaren ekarpenak kontuan ez hartzeak emaitzen balioa mugatzen du, ene ustez.

4. ZUBERERAREN SAILKAPENAZ ESB-N: «ZUBEROAKO AZPIEUSKALKIA»

Orain zubereraren kasua iruzkinduko dut, «Zuberoako azpieuskalkia» ESBren hitzetan, beste Euskal Herriko dialektoez edo tokiko hizkerez mintzatzeko gai ez bainaiz. Euskalkietan edo azpieuskalkietan sailkatzea aztertu baino lehen, *zuberera* izendepena *Zuberoako (azpi)euskalkia* baino egokiago dela erranen nuke. Alde batetik zubererak Eskiula, Bearnoan dena, kontuan hartzen du eta, bistan da, diasporako zuberotarren euskara. Bestetik, hizkuntza bat hizkuntza-komunitate bati loturik zaio lurralde bati baino gehiago (alderdi geografikoak bere garrantzia baldin badu ere).

EHHA egiteko, Zuberoan 11 inkesta-leku hautatuak izan ziren eta Eskiula Bearnoan. Lekuko zenbakia lekuka hori zen: Altzai 3, Altzürükü 5, Barkoxe 2, Domintxaine 3, Eskiula 2, Larraine 2, Montori 3, Pagola 1, Santa Grazi 5, Sohüta 3, Urdiñarbe 6, Ürrüstoi 1.

Osotasuna bilatu gabe, ESBk hautatu dituen hizkuntza-alorretan banan-banan so egin ditzagun aipatu ez diren zubereraren hizkuntza-ezaugarri garrantzitsu batzuk.

Fonologia

«Fonologiari buruzko euskalkien mapa»z (92. or.), hau dio ESBk: «Azkenik, ekialdeko euskalkia dugu (berdez), zeinetan Iparraldeko hizkera guztiak sartzen baitira eta hauekin Nafarroako Luzaide eta Zugarramurdi; guztira 47 herri» (93. or.). Hemen ESBren oinarri teoriko batzuen eta metodologiaren ahulezia argiki agertzen zaigu. Fonologiari buruzko datu-basea sortzeko hartu den corpusa, EHHAtik ateratua, mugatua da eta autoreek, printzipioz, beste euskal lan dialektologikak edo linguistikak kontuan hartu ez dituzte. Haatik, zubereraren sistema fonologiko garaikidea azaldu izan da eta beste euskalkienetik aski ezberdina da (adineko hiztunena bederen). ESBk hori argian ematen ez du; alderantziz.

Hona, laburki, ESBk aipatzen ez dituen zubereraren sistema fonologikoaren berezko ezaugarri batzuk. Fonemak: /u/ u ~ /y/ ü bokal aurreko oposaketa (ü egiazko fonema da); bokal ahokari / sudurkari oposaketa bereizlea: /y/ ~ /ÿ/, /o/ ~ /ō/, /a/ ~ /ā/ gutxienik; kontsonante frikari ahostun / ahoskabe oposaketa bereizlea: /s/ ~ /z/, /ʃ/ ~ /zʃ/ erretroflexuak, /f/ ~ /zʃ/; kontsonante palatalizatuak /t/ ~ /tʃ/, /d/ ~ /dʃ/, /l/ ~ /lʃ/ eta /n/ ~ /ɲ/. «Ez

da bustidurarik eremu honetan» baieztapena okerra da (99. eta 150. or.). Testuinguru hipokoristiko batzuetan bustidura erabil daiteke, fonema palatalizatuak bezala. Arau morfo-fonetikoak ez ditut hemen aipatuko, bokal itxiera, bokal edo kontsonante kontrakzioa eta ezabaketa, atzeranzko asimilazioa (*ütürri* / iturri, *ülün* / ilun...), etab.

ESBk berak erakusten du zuberera alor honetan berezia dela. Fonologiari dagokion Eskiularen similaritate-mapari burua iruzkinduz, hau erraten da: «7.2. mapak erakusten duenez Eskiulatik [...] hizkuntzaz hurbilen diren herri guztiak (gorriz adierazita) geografikoki ere hurbil ditu; guztira 11 herri dira eta eremu kohesionatua osatzen dute» (90. or.). 11 herri horiek EHHaren Zuberoako 11 inkesta-puntuak dira. Zergatik ez erran, fonetika-fonologiaren alor horretan, zuberera hain berezirik izanez, euskalkia dela?

Izen-morfologia

«Ekialdeko euskalkiaren azpieuskalkien ezaugarriak» lerroaldean (48. or.), 33 herri bildu dira «Ekialdeko barnekaldeko azpieuskalkia» sortuz (Zuberoa eta Nafarroa Beherea gutxi gorabehera). Halere, ESBk aztertu duen deklinabide-kasuen eremuan, zubereraren ezaugarri batzuk, batzuetan ez eskusiboak, falta direla ohartzen da. Deitu den inesibo arkaikoaren forma izoztu batzuk: *etxen* (nire, hire, zure... etxean), *barnen* (barnean), *gainen* (gainean); leku-izen berezien ablatiboa: *-rik -tiken* ordez (*Maulerik*); bizidunen leku-kasuak *-gan* gabe erabil daitezke, adib. inesiboan: *osaban* (osabarengan), *nitan* (niregan); *-ra* / *-rat* formak aldaerak ez dira, adlatiboa edo terminatiboa markatzen dituzte, baina hiztun denek ber balioa ematen ez diete.

Zubererak, erakusleak pluralean direnean, absolutibo eta ergatibo formak bereizten ditu: hurbilekoa *hawk* (abs.) / *hauek* (erg.), erdikoa *horik* (abs.) / *horiek* (erg.), etab.

Izen-eratorpenean, zubereran atzizkien forma berezi batzuk badira (ESBk izen-eratorpena ikertu ez du): *-tarziin* (*edertarziin*), *-gei* (*senargei*), zenbaki ordinalen *-gerren* (*hogeigerren*)... Bearnerari mailegatu atzizki eta aurrizki, denak ez eskusiboak, badira: *arra-* (izen-, *arraseme* / biloba, eta aditz-aurrizkia, *arrahartü*), *-aje* (*bidaje* / bidaia, *mintzaje* / hizkuntza), *-dant* / *-lant* (*tratülant*, tratulari), *-sa* (*errejentsa* / andereño)...

Aditz-morfologia

Ekialdeko euskalkien ezaugarriak aditz-morfologian (61. or.), holako adizkiak aipatuak dira zubererarenak ez izanik ere. Orainaldian, *zako*, *zaiiku-zauku* (NOR-NORI), zubereran *zaio*, *zaikü* dira; *dakot*, *dako* (NOR-NORI-NORK), zubereran *deiot*, *deio* dugu, *-e-* epentetikoarekin (adizki ez alokutiboetan aditz-laguntzaileei modu eta aldi denetan aplikatzen zaie). Halaber, Zuberoako azpieuskalkiaren ezaugarrietan (65. or.), NOR-NOR-NORK sailean forma okerrak emanak dira orainaldian: *deiot*, *deio*, *deitzo*-ren ordez, *diot*, *dio*, *ditio* emanak dira, *-e-* gabe. Aldiz, «Zuberoako azpieuskalkia»ren ezaugarrien bilduman, forma egokiak emanak dira (150. or.).

**iron* aditz-laguntzailea ez da aipatua. *Etorri* aditzaren erabileraz, adibide horiek emanak dira: *horra zide*, *horra dira* (65. or.). Zubereran *etorri* aditza erabilia ez da:

horren ordez *jin* aditza da. ESBk ematen dituen adibide horietan *hor* leku-adberbioa kasu adlatiboarekin (*horra*) eta *izan* aditza ditugu. Geroaldian, *izan* aditzarekin nagusiki, *-kerekiko* adizki trinkoak ez dira aipatuak: *dateke* (izanen da, neutro), *nükek* (izan naiz, alok. hurbil maskulino). Oro har, aditz-izenaren erabilera hedatuagoa da zubereran. Adibidez, aditzak izendatzeko erabilia da eta ez aditzoina gehi aspektu burutua (partizipio burutua) oraingo hiztegietan bezala: *ebilte* (ibili), *hartze* (hartu), *joaite* (joan)...

Sintaxia

Alor honetan ere, zubererak ESBn aipatu ez diren berezitasun batzuk baditu. Hona bi. Subjektuaren atributua (izen, adjektibo) mugagabeen da: *errejent zen*, *eder düzü*. Aldiz, *errejenta zen*, *ederra düzü* adibideetan, mintzatzen dena aipatu duen batez mintzatzen da (besteen artean errejenta zenaz, ederra denaz) eta solaskideak zertaz ari den badaki. Zubereran, atributuarekin *-a* erabiltzea ala ez oposaketa bereizlea da, adierazgarria.

Zubereran edutezko genitiboaren erabilera zabalagoa da: aditz-izenarekin objektua markatzeko: *Zer plazera mendiaren ikustea!* (*mendiaren* orde) edo subjektua (anbigotasunik ez bada): *Maianaren sagar saltzea*. Arirekiko egituretan objektua markatzeko ere: *Lanaren egiten ari diük* (*lanaren* orde).

Lexikoa

«Ekialdeko euskalkiaren mendebaldeko azpieuskalkiari [Lapurdi, Nafarroa Beherea, Luzaide eta Domintxaine] dagokionez, hedadura handiena eta ia soilik azpieuskalki honetan erabiltzen direnen artean», ESBk 9 hitz ematen ditu (116. or.). Beste 12 hitzek hedapen urriago dute. Aldiz, Ekialdeko euskalkiaren ekialdeko azpieuskalkian, deitu den «Zuberoako azpieuskalkian», ESBk hedapen handiko 14 hitz «esklusibo» eta zabalpen ertaineko 23 eskusibo ematen ditu (116. or.). EHHako hitzak direla oroitarazten dut.

Har dezagun orain *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Hiztegi horrek 359 sarrera ematen ditu Zub. (zuberera) laburdurarekin, horietan 3 sarrera amikuzerarekin (www.euskaltzaindia.eus, 2020-03-26an kontsultaturik). Lap. (lapurtera) laburdurarekin 57 sarrera daude eta 49 BNaf. (behe-nafarrera) laburdurarekin. Hots, gaia gehiago ikertu gabe, erran dezakegu Ipar Euskal Herriko (azpi)euskalkien artean zubererak lexiko propio zabala duela (arrazoi historiko, politiko-administratibo, geografiko, ekonomikorengatik... hizkuntza-kontaktua garatu dutenak).

Hots, haren sistema fonologiko eta lexiko bereziak ikusiz batez ere, baina ez bakarrik, zuberera berez euskalki bat dela erratea hobe da, ene ustez.

Dialektologia-ikerketetan hiztunen hizkuntza-irudikapenak ez dira kontuan hartzen, hizkuntza-datuak aztertzen baizik ez dira. Soziolinguistikan, pertzepziozko dialektologiaren iker-eremua da. Hitztunen hizkuntza-kontzientzia, hizkuntzei buruzko usteak eta iritziak... aztertzen ditu. Zuberotarren kasuan badakigu haiek zuberera egiazko euskalkitzat edukitzen dutela, berezi-berezia gainera.

5. ESB-REN BIBLIOGRAFIAZ

Errezentsio hau bukatu baino lehen, hitz bat liburuan emanik den bibliografiaz (159-163. or.). Erran nezake *pro domo* dela eta, ondorioz, hertsia. ESBren autoreen argitalpenen zerrenda luzea da (batenak 26 erreferentzia baditu). Aldiz, euskara aztertzen duten beste dialektologoena biziki laburra da edo ez da bat ere aipatua. Bistan da, erran den bezala, liburu hau dibulgaziokoa da eta bibliografia luze-luzea egokia ez litzateke. Halere, adibide bat baizik ez emateko, Iñaki Camino dialektologoaren 2004ko lan bat bakarrik aipatua da, baina ez, besteak beste, 2009ko *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi* edo 2016ko *Amiküze eskualdeko (h)eskuara* liburuak.

6. EUSKAL DIALEKTOLOGIAZ HITZ BAT BUKATZEKO

Aztertu dugun ikerketa honek euskalkien argazki zabal bainan partzial bat eskaintzen digu, 40 / 50 urte dituen inkestaren urteak eta lekukoen adina kontuan hartzen baldin baditugu. Ez da panoramikoa edo orokorra. Sinkronian egoteko, azken bizpahiru hamarkadetan euskal dialektologian anitz bildu diren datuak ez ditu kontuan hartu. *Euskararen herri hizkeren atlasarenak* bakarrik erabili ditu, eta ez denak. Hautu horrek bere abantailak baditu, baina ere desabantailak. Corpus zehatz bat da baina mugatua eta azkenean ez hain handia, bere hutsunekin eta oreka faltarekin. Horri esker, *Euskalkien sailkapen berrian* dialektometriaren teknikak zorrozki aplikatu dira, analisi estatistikoak baliatuz. Eta euskalkien ezagutzan hori ezin ukatuzko ekarpena da.

Bainan, autoreek deitzen duten dialektologia *tradizionala, intuitiboa, subjektiboa...* bere alde onak baditu: kontuan hartzen ditu edo, hobeki erran, har litzake (ez era sistematikoan, ez era estatistikoan) euskalkiei buruzko ikerketa monografikoak, euskarari buruzko kizkuntza orokor-ikerketen datu dialektal interesgarriak... Haren corpus potentziala zabal-zabala da, baina lan egiteko molde horrek kalkuluak eta estatistikak ahalbidetzen ez ditu. Halere, ez dut uste haren «zientifikotasuna» zalantzan dela, giza-eta gizarte-zientzietan dena zenbakitzea, neurtzea (kuantifikazioa) ezinezkoa dela jakinez. Sailkatzea, hierarkizatzea... (kualifikazioa) beharrezkoak dira analisisian, interpretazioan. Halako zerbaite erraten da ESBren Epilogoaren azken orrialdean (158. or.).

Ene ustez, bi metodologiak, bateragarriak izan gabe, bata besteari lagungarriak dira. Biek hizkuntzalaritza orokorrean oinarri teoriko sendoren beharra badute, hizkuntzadatuak definitzeko, konparagarria dena konparatzeko, euskalkia (era orokorrean ikertu den hizkuntza forma) hizkuntza-alor denetan aztertzeko... Hots, euskal dialektologian ere teoria linguistiko deskriptiboaren eta hizkuntza-diziplinartekotasunaren beharra agertzen zaigu, euskal dialektoen zientzia (*dialekto-logia*) hobetzeko.

Ohartu gara hogeita hamar bat urtez, euskararen gisa, euskalkiak laster aldatu direla, ahuldu eta nahasi Euskal Herri osoan hedatzen den euskara batuarekin (tokiko euskara batuarekin). ESBren Epilogoan (155-156. or.) hori aipatua da. XIX. mendearen eta XX. mendearen lehen erdiko euskalki «garbi»en bilaketaren eta ikerketaren urrezko

garaia iragan da (euskaldun denak elebidunak dira eta, gero eta gehiago, euskaraz eskolatuak). Uste dut dialektologia soziolinguistikari hurbildu beharko zaio, baserria pixka bat utziz, hiri-aglomerazioetara joanez eta soziolektoei buruzko ikerketen berri eskuratuz, euskararen bariazioari buruz ikuspegi globalagoa ukaiteko.